



www.begiko.com

© Testua: 2008, ESPERANZA MARTÍNEZ DE LEZEA GARCÍA

© Itzulpena: 2018, JOSE LUIS PADRÓN

© Euskarazko argitalpena:

2020, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-25-4

Lege-gordailua: M-16329-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Bigarren argitalpena: 2020ko maiatza

Hamalautik gora berrargitalpen Zubia argitaletxean

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras


Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,

Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren
lehengaiak birziklagarriak dira,
eta jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren
eta energia-kudeaketaren alorreko Europako
arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (CentroEspañol de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Heriotza harrigarria

Toti Martínez de Lezea

Azaleko irudia: Mikel Casal

begiko

Isabel Martínez de Lezeari.

Ur gardenak ziren, eta algak eta koloretako arrainak ezin hobeki ikus zitzakeen, urpeko betaurrekoak jantzi gabe. Eta, ur-azaletik bi metro azpira ere, arnasa hartzeko gauza zen. Sentsazioa arraroa zen, baina berari naturala egiten zitzaion guztiz. Itsas izar erraldoi bat ikusi eta igeri egin zuen harengana, gertuagotik aztertzeko; animaliak garroak bildu eta bola-forma hartu zuen, trikuaren gisara. Ukitzeko asmoz, eskua luzatu zuen eta...

—Berandu iritsiko zara institutura!

Atearen danbatekoak eta Juanamariren ahotsdoinu desatseginak kolpetik esnatu zuten. Ikerrek denbora behar izan zuen itsaso urdin batean igerian ez zegoela konturatzeko, bidaiakatalogoetan azaltzen diren horietako batean, alegia, baizik eta zeharka etzanda zegoela hankaz gora jarritako ohearen gainean; azpiko izarra bola bat eginda eta

edredoia lurrean botata zeuzkan. Ohetik jaikitzea ere kostatzen zuten zitzaien eta begiak itxita egon zen, une hura infinituraino luzatzeko irrika beroan.

Juanamarik, neskameak, gelan sartu eta, indarrez tira eginda, errezelak zabaldu zituen, oin-kiratsaz eta gelako desordenaz marmar egiten zuen bitartean.

—Berandu iritsiko zara institutura!

8 Etxean barrena aditu zuen batetik bestera baita irratia nola pizten zuen ere, goizeko saioa entzuteko, eta ihesbiderik gabe gelditu zela jakin zuen. Oso mantso jaiki zen, gorputza, hamalau urteko gaztearena izan ordez, 250 kiloko sumo-borrokalariarena balu bezala.

Goizero berdin. Lehenago oheratuko balitz, gutxiago kostatuko litzaioke jaikitzea, Interneten gaueko hamabiak pasa izan arte ibili beharrean. Behin, *Queen of the Stone Age* taldearen azken kantetako bat saretik jaitsi eta musika anbulantziako sirena bezala pasilloan zehar entzun zenean, amak harrapatu egin zuen. Harrezkero, kontuz ibiltzen eta hanka-sartzerik ez egiten saiatzen zen. Argirik gabe aritzen zen lanean eta isilean nabigatzen, edota izeba Martak hamalau urte betetzean oparitutako diruarekin erosi zituen entzungailuak jartzen zituen. Asmakari ede-

rra zen Internet; txateatu ere egin zezakeen milioi bat pertsonarekin, mila mundu ezberdin bisitatu gelatik irten gabe, eta, praktikaren praktikaz, gero eta adituagoa bihurtu zen. Gurasoek ekipamendu guztia oparitu zioten bere azken urtemugan.

—Ea teknika berriekin moldatzen hasten zaren —orojakilearen kutsu bereziaz erantsi zuen airtak—. Hemendik gutxira, ordenagailuaz baliatzen ez dakiena analfabeto integrala izango da.

—Eta ez denbora alferrik galdu txat- eta porno-orrietan —abisatu zion amak—. Lan-tresna da.

Nolanahi ere, ziur zekien berarekin ematen zuten denbora eskasagatik konpentsatu egin nahi zutela. Lanera abiatzen ziren bera esnatu aurretik, eta etxera afaldu eta lo egitera itzultzen ziren. Hirurak familian elkarrekin hizketan aritu ziren azken aldia ere ez zuen gogoratzen, Santi lagunarenean ez bezala, haren gurasoek eta neba-arrebek beti aurkitzen baitzuten elkarrekin hitz egin eta barre egiteko tarteren bat. Konpromisorik ez edota bidaia motzen bat egiteko aprobetxatzen zuten asteburu solteren batean, isilean jaten zuten zer esatekorik gabe eta telebista piztuta. Dena den, zer zuten ba elkarri esateko?

—Zer moduz institutuan?

—Ongi, eta zuek bulegoan?

—Ongi, eta ikasketak?

—Ongi.

10 Ez zituen beretzat nahi zenbaitetan ikusten zituen telesail amerikarretako eszenak: aita- semeak saskibaloian, alabak bezain gazteak ematen zuten amak familia osoarentzako bazkaria prestatzen..., ezta hurrik eman ere! Baina gustatuko litzaioke gurasoak bere bizitzaz gehixeago arduratzea. Bai eta bera gurasoenaz ere. Pinguino-itxurako ordulariari begiratua eman zion; izeba Martak sei urte betetzean egindako operari zatarra zen eta, hala ere, oraindik, primeran zebilen.

—Jobar! Bederatziak bost gutxi!

Ziztu bizian jantzi zituen bezperako arropa berak: praka bakero zimurtuak, prakak bezain zimurtutako elastiko beltza, bularrean gizotsoaren esku iletsua erakusten zuena. Zapatilak jantzi zituen lokarriak askatu gabe, motxila hartu eta, gelatik, korrika irten zen, plazako erlojuak bederatziak josten zituen une berean.

—Gosaldu gabe al zoaz? —galdetzen entzun zion Juanamariri.

—Ez dut astirik! —erantzun zuen ateari danbatekoa eman eta portalerainoko eskailerak launaka jaitsi baino lehen.

Eskolazainak burdin hesia ia-ia itxita zeukan, Iker tximista bezala iritsi eta irekidura estutik sartu zenean.

—Berriz berandu —agurtu zuen gizonak, baina hari erantzun ez eta lasterka jarraitu zuen sarrreraraino.

11

Pasilloak hutsik zeuden, eta zuzen joan zen bigarren solairuko bere ikasgelara. Hura zorte txarra! Ostiraleko lehen orduan Kultura Klasikoa, eta une hartantxe Apraiz zaharra betaurrekoak jartzzen eta Hirugarren A-ko hogeita bost ikasleak banan-banan begiratzen ariko zen, zenbatek huts egin zuten zenbatzen. Poliki ireki eta bere buru kizkur orraztu gabea atera zuen atetik.

—Urrutia, behingoagatik zure lekuan ikusi nahi zintuzket ni iristerako.

Barkamena eskatu nahi zuen irribarretxea egin eta lehenbailehen eseri zen bere tokian. Nork agindu ote zion hautazko ikasgaien artean Kultura Klasikoa aukeratzeko? Interesgarria gerta zitekeela iruditu zitzaion. Gainera, non aukeratu askorik ez

zegoen: edo hori, edo Frantsesa, eta, labur esanda, probetxugarria litzaioke, baldin eta bere kuadrillakoekin telebistako lehiaketa haietako batera aurkezteko erabakia hartuko balu. Santiren etxean, noiz edo noiz ikusten zituzten, eta batek erantzuten ez zekiena, besteak zekien. Berak, noski, pentsatu gabe erantzuten zituen animaliei eta leku arraroei buruzko galderak, zein da Siriako hiriburua, esaterako. Mapan kokatzen asmatzen ez bazuen ere, lagunak aho zabalik utzi zituen, lehiakideei aurrea hartuz «Damasko» erantzun zuenean. Primeran etorriko litzaieke lehiaketako dirua. Gurasoak ia konbentzitu zituen auzoko mendizale-elkarteak Huescara antolatu zuen ibilaldian izena emateko behar zuten baimena lortzeko, trekking egun batzuk izango ziren abuztuan.

—Ongi portatzen bazara —esan zion amak.

—Aprobatzen baduzu —esan zion aitak.

Eta gauza bera esan zuten gainerakoen gurasoek. Erakutsi egin nahi zieten ikasturte osoa astoak bezala ikasten emateaz gainera uztailean zehar ere prest zeudela bidaia ordaintzeko diru nahikoa ekarriko zien edozertan aritzeko. Baina, dirua lehiaketan lortzen bazuten, lan gutxiago, jakina.

—Hona zuen notak.

Irakaslearen deiak bere planak ahaztera eta kasu egitera behartu zuen. Azkeneko ebaluazioa zen, eta azterketa gainditu beharra zuen. Justu-justu ez zen iritsi bostekora hiru aurrekoetan, baina nota on batek hondamenditik libra zezakeen azken honetan. Orria noiz entregatuko zioten itxaron zuen, begiak une batez itxi zituen indarra hartzeko, eta, berriro ireki zituenean, zorigaiztoko 4'7ko bat aurkitu zuen. Harrituta, sinestera iritsi gabe begiratu zion notari. Erotu egin ote zen Apraiz zaharra? Nola ukatu ziezazkiokeen hiru hamarren ziztrin azken ebaluazioan?

—Gainditu dutenei, zorionak. Gainerakoek jaso bezate udaldirako ikasketa-programa modura eratu ditudan orriak. Espero dut irailean prestatua etorriko direla.

Agure zikina! Ez zaio zoro-bizar luze irtena bertan eroriko!

Hitz bakar bat ere ez zuen gehiago entzungo ikastordu osoan zehar. Oso zaila zitzaion argitasunez pentsatzea. Gainerako irakasgaiak gaindituta zeuzkan, baina, aitak ohartarazi zion trekkinga egin nahi bazuen denak gainditu behar zituela.

—DENAK —azpimarratu zuen.

Eta ziur zegoen esandakoari eutsi egingo ziola. «Aita arduraduna» ren papera bere egiten zuenean, ez zegoen kontra egingo zionik. Eta ikasgai horixe izan behar, gainera, interes gutxienekoa, opor zoragarriak hondatuko zizkiona eta lur jota utziko zuena!

14

Zutitu zen automatak bezala, ikasgai-aldaketa-rako txirrinak jo zuenean, eta irakaslearen mahaira hurbildu zen, udararako lan-orriak pilatzen ziren tokira.

—Ez al dago beste aukerarik? —galdetzera ausartu zen, une hartako bere etsairik handienari gogor eginez.

—Ez —erantzun zuen hark—. Garaiz iristeaz arduratu izan bazina eta ametsetan aritu ordeztarreta jarri izan bazenu, agian, ikasgai honekin goza zenezakeen eta orain ez ginen horretaz hitz egiten ariko.

Ez zion erantzun; orria hartu zuen; motxilan sartu begi-kolpe bat ere bota gabe, eta eguna eta udara izorratu berri zizkion gizona agurtu gabe irten zen. Tutorearekin hitz egingo zuen, berekiko pentsatu zuen, eta egoera zein zen agerian jarriko

zion. Dena gaindituta eduki eta datorren urtean aukeratu ere egingo ez zuen ikasgai batengatik kalte-tuta egotea ez zen bidezkoa. Pikutara Kultura Klasikoa! Zabor hutsa zen, egokia intelektual itxurako lau koitadurentzat, baina berak ez zuen ezertarako behar Informatika ikasteko. Manu tipo jatorra zen eta ulertu egingo zion: hark agure zoro aker-bizardunarekin hitz egin eta aprobatu ziezaiola lortuko zuen.

15

Baina tutoreak arretaz entzun zion, haren arrazoibide bakoitzari baietz erantzunez buruarekin, eta, azkenean, azaldu zion Apraiz irakasleak ez zituela sekula ebaluazioen notak aldatzen. Ez zegoen zereginik alde horretatik.

Etxera itzuli zenean, kroketa egin berrien usaina hartu zuen eta sabela uzkurto egin zitzaion, aurreko iluntzetik mokadurik hartu gabe zegoela gogorarazteko. Juanamarik bazkaria jateko prest utzi zuen sukaldeko mahai gainean: patata-entsalada eta haragi-kroketa batzuk. Motxila hoz-kailu ondoan bota zuen eta bazkaltzen hasi zen, eseri ere egin gabe. Orduan, emakumeak edalontziaren kontra jarrita utzi zuen oharrari erreparatu zion:

*Amak deitu du, aitak eta berak
konpromiso bat dute
eta ez dira iluntzera arte itzuliko.*

16

Ikasturtea amaitzear zegoen, eskola goizetan baino ez zuten eta bi aste barru ez zuen instira joateko jaiki beharrik izango. Bizi zuen unea bestelakoa balitz, poztu eta herriko igerilekura joango litzateke, aire zabalean zegoen eta uda-denboraldirako ireki berri zuten, baina egun hartan ez zuen inorekin egoteko gogorik, are gutxiago bere lagun uदारarako planak zein ziren entzuteko gogorik. Aitari kroketa hotzak izugarri gustatzen zitzaizkion eta beti uzten zizkion dozena erdi bat berretzat hozkailuan, baina ez zegoen inori faborerik egiteko umorez eta, mendekuz, denak jan zituen.

Juanamarik ohea eginda eta gela txukunduta utziak zizkion. Amak ohea egitera behartzen zuen txikiagoa zenean, baina luze zeraman egin gabe. Zertarako? Berak egiten zuen lo han eta bost axola zitzaion izarak lisatuta edo lisatu gabe zeuden edota edredoia bere lekuan zegoen. Etzan egin zen eta paretan txintxetaz iltzatua zuen *Eraztunen Jauna* estreinako pelikularen posterrari begira geratu zen.

Laket zitzaion gotorleku bat sutan eta dragoi hegalarari talde bat hari erasotzen erakusten zituen marraskia. Bere burua Aragorn gisara imajinatu zuen eta Saruman gaiztoaren lekuan, Apraiz irakaslea, eta, tarte batez, oso ondo pasatu zuen bion arteko borroka irudikatzen, eta, nola ez, bera zen irabazle. Pena zen gauza horiek benetan ez gertatzea.

—Iker, tontolapiko hutsa zara! —esan zuen berekiko.

17

Beti izan zuen ametserako joera, lo egon edo esna egon. Azken finean, ez zion inori kalterik egingiten eta bere mundu propioa sortzen zuen, unean unekoa eta gustukoena, baina ja ez zen haurtxoa eta absurdoa zen inora ez zeramaten irudipenetan denbora alferrik galtzea. Bere buruarekin haserre, ohetik jaiki zen eta ordenagailua piztu zuen, lur ezagunak bere esanetara jartzen zuen «infernuko makina». Ia konturatu ere egin gabe, «apraiz» tekleatu zuen bilatzailean eta 160.728 emaitza agertu ziren segituan. Nola demontre zuen izena? Ideiarik ez. Instian jende guztiak Apraiz irakaslea deitzen zion edota Apraiz soilik, baina, noizbait, entzuna zuen tipoa goren mailako bat, edo dena delakoa, zela bere arloan.

—Bueno, ez da hainbesterako izango! —bota zuen ozen.

Jakintsua balitz, ez litzateke instian arituko. Unibertsitatean emango luke eskola, edo, behinik behin, inortxok ere –bera barne– irakurtzen ez di-tuen horietako liburuak idatziko lituzke.

18 Orri batzuk aurrera egin, baina ez zuen ezer in-teresgarririk aurkitu. «Setiatua» goitzenarekin sartu zen bizpahiru txatetan ere, eta ez zegoen apartekorik ezer. Asko dibertitzen zen isileko ehiztariak harrapakinaren bila bezala barneratzen zenean, hura erotuz hainbeste gezurrekin, ligatze-ko zituen baino urte gehiago zituela jarriz eta ez zenaz harro agertuz, baina hori hasieran izan zen, laster ohartu baitzen besteek ere gauza bera egiten zutela eta berehala aspertu zen. Bat edo beste bisit- tzen zituen noizean behin, zer gerta ere, zortea izan eta norbait desberdina ezagutzeko, baina argi zegoen txatean ibili ohi zirenak bera bezain gezur- tiak zirela eta foro batean sartzeko gogorik ere ez zuen, nahiz eta askotan une atsegin bat igarotzeko gaiak aurkitu. Nazkaturik, ordenagailua piztuta utzi zuen, saskibaloirako baloia hartu zuen eta bere etxe azpian zegoen kirol-kantxara joan zen.

Espero bezala, trekkingaz ahaztu behar izan zuen. Alferrrik aritu zen bere arrazoibideak telebis-tako abokatuen itxuran aurkezten, alferrrik egin ere oporretan ikasiko zuen promesa. Gurasoek erabakiari irmo eutsi zioten eta ez zuten iritziz aldatzeko inolako borondaterik erakutsi. Hala ere, haren ustez, gurasoak ez zeuden benetan haserre. Haren ustez, gertatutakoak bide eman zien lagunekin joaten ez uzteko, eta horrek lasaitasuna ematen zien, ziur baitzeuden joanez gero zerbait txarra gertatuko zitzaiola.

19

Gauza bera gertatu zen bi urte lehenago eskatu eta Gabonetan oparitu nahi izan ez zioten monopatinarekin, merezimendurik ez zuela argudiatuz. Santi lagunak bere zaharra oparitu zion, eta horri ezin ezezkorik eman, baina arnasa lasai hartu zuten muturreko galanta hartu eta bi zatitan apurtu zuen egunean. Eskuineko besoa apurtu izanak eman zien abaguneaz baliatu ziren beste batera berriz igotzeko baimena debekatzeko. Ez zuen asko nahigabetu, egia esan, sekulakoa izan baitzen hartu zuen kolpea eta gogoia joan egin zitzaion bolada batez, baina haien horrenbesteko babestu nahiak nekatu egiten zuen. Jadanik ez zen umetxoa

eta hala izaten jarraituko balu bezala tratatzen zuten.

20 Etsita, ogi gogorrari hagin zorrotza sartzea eta bere burua antolatzea erabaki zuen. Hor zituen igerilekua eta saskibaloi-kantxa, eta bere lagun batzuek baino zorte handiagoa ere bai, horiek aito-na-amonen herrira edota jendez eta medusaz lepo eginda eta arkakuso batentzat ere lekurik ez zuten hondartzetara bidaiatzera behartuta baitzeuden.

Hala ere, uztailaren erdialdera, gurasoek lagun baten landetxean egun batzuk pasako zituztela esan ziotenean, hiltzeko moduko ikara hartu zuen, abuztuaren batetik hamarrera, hain zuzen ere. Hala, Ama Zuriaren jaietako gau-zaratak jasan beharri ihes egingo zioten, azaldu zutenez.

—Nik ere bai? —galdetu zuen, ezezkorik espero gabe.

—Bai ba, maitea! —amak ozenki, berak hainbeste gorroto zuen buru-laztana egiten ziola—. Ez duzu pentsatuko hemen bakarrik utzi behar zaitugunik, ezta?

—Eta Juanamari?

—Baina zein mundutan bizi zara, seme? Berak ere oporrak hartuko ditu.

—Eta non dago toki hori?

—Mendian.

—Non, jakin badaiteke?

Jaten ari zen txorizo ogitartekoa kontrako eztarrira joan zitzaion. Zoratu egin ziren; zoratu behin betiko. Nola bururatu ote zitzaien mendira eramatera haurra balitz bezala? Eta zer arraio egin behar zuen berak mendian? Basoa euliz eta zomorroz beteta zegoen, eta jada ez zegoen sugandilak harrapatzeko adinean.

—Errioxan.

Horrelakorik! Hondartzara tortillarekin eta ga-seosarekin joatea baino okerragoa zen! Haren gurasoei izugarri gustatzen zitzaien Errioxa eta hara joaten ziren aukera zuten aldiro. Bera ere berekin eramaten zuten haurra zenean, baina oztopo hartatik libratzea lortu zuen hamabi urte bete zitue-nean. Mila bider nahiago zuen izeba Martaren etxean gelditu, aire garbia arnasten —amak esaten zuenez— edota aitak beti janari bera —patatak errioxar erara eta arkume-saiheskiak— eskatzen zituen jatetxeetan sartuta ibiltzea baino. Lagun batzuekin elkartzten ziren eta bera onddo bat bezala aspertzen zen. Hamar egunez aire garbia arnasten

eta saiheskiak jaten pasatzeko ideiak gaixotu egiten zuen, eta azken ahalegina egin zuen.

—Ezin al naiz izeba Martaren etxean gelditu?

—Ez. Greziara joatekoa da Unibertsitateko beste irakasle batzuekin eta, gainera, opor-egunak familia baturik bizitzeko dira, aita-amak seme-alabekin.

22 Ahapeka zin egin zuen noizbait seme-alabaren bat izatekotan, pertsona heldua bezala tratatuko zuela eta ez zuela oporretan nahi ez zuen tokietara joatera behartuko sekula.

Oraindik, gehiago saiatu zen tortura hura saihesteko ahaleginetan; Santiren amak beren etxean geratzera gonbidatu zezala lortu ere lortu zuen, ez baitzuten inora joateko asmorik, baina dena alferrik izan zen. Hitz erdi txikienari aitak mila hitz baino gehiago balio zuen begirada batekin erantzuten zion, eta ez zen berriz saiatu. Lagunei bere ezbeharraren berri ez ematen ahalegindu zen. Planak egiten entzun zituen, Huescara egingo zuten bidaiatz, kanpaldiez, festez hitz egiten, eta ja ez zuen duda egiten: bera zen denen artean zortetik txarrena zuena, txori zorigaiztokoena.